

SAN MARKOKO MANKOMUNITATEAN HONDAKINEN GAIKAKO BILKETETATIK DATORREN PAPER-KARTOIAREN SALMENTA-KONTRATUA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN ORRIA

1.- XEDEA

Orri honen xedea San Markoko Mankomunitateak bere lurralde-eremuan ezarriak dituen hiri-hondakin eta asimilagarrietarako gaikako bilketetatik datorren paper-kartoiaren salmenta kontratatzeke oinarri bezala erabiliko den zenbait baldintza tekniko zerrendatzea da.

2.- MATERIALAREN KANTITATEAK ETA KALITATE DESBERDINAK.

Gaur egun San Markoko Mankomunitateak bilketa eskaintzen duen eremu desberdinetan sortzen diren papera eta kartoi-bilgarriak gaika biltzera (GB) bideratutako zenbait zerbitzu ezarria du. Horiek ondoren zehaztutakoak dira:

- Paper-kartoiaren GBaren zerbitzua herri-bidean kokatutako edukiontzien bitartez.
- Paper-kartoiaren GBaren zerbitzua atez ate (AA) ikastetxeetan eta administrazioan.
- AAren bilketatik datorren merkataritza-kartoiaren GBaren zerbitzua.
- Espaloian dauden ekarpen-puntuen bilketatik datorren merkataritza-kartoiaren GBaren zerbitzua.
- Industria-poligono eta teknologia- nahiz enpresa-parkeetako bilketatik datorren merkataritza- eta industria-kartoiaren GBaren zerbitzua.
- Edukiera handiko edukiontzietan jasota, garbigune eta zabortegetatik datorren kartoiaren GBaren zerbitzua.
- Edukiera handiko edukiontzietan jasota, fruta- eta barazki-kaxen GBaren zerbitzua (Merkabugati).

Eskaintzaileek beren eskaintzak doitzeko xedez, eskaintza aurkeztu baino lehen zerbitzu bakoitzean bildutako materialaren kalitatea zehazteko zerbitzuko bidaia-kopuru zehatza eska dezakete. Zerbitzu Teknikoekin adostu ondoren definituko dira. Halakoetan beren

kargura izango dira, batetik, garraioaren ondoriozko gastuak eta, bestetik, Mankomunitateari eskatutako material guztia ordaindu beharko diote, gaur egungo esleipenduna fakturatzen ari den prezioan.

Eskaintzaileek magnitudea ezagutu eta beren kalkuluak egiteko, I. eranskinean azkeneko 2 urteetan zerbitzuko bildutako kopuruen zerrenda dago.

Orokorrean, kontratistak deskribatutako jatorrietatik entregatzen zaion material guztia onartu eta tratatu beharko du, egokiak ez diren beste material batzuk eta hezetasunaren edukia alde batera utzita. Era berean, kontratistak bere gain hartu beharko du desegokiak kudeatzeari dagokion kostu guztia.

3.- ESLEIPENDUNAK BETE BEHAR DITUEN JARDUERA-IRIZPIDEAK ETA BALDINTZAK.

Zerbitzu desberdinetatik iristen den paper-kartoiak bilketa-ibilgailu propioekin garraiatuko da esleipendunak Mankomunitatearen eskura jartzen dituen instalaziotaraino. Horietan materiala hartu eta, ondoren, sailkatu nahiz moldatuko da, merkaturatu eta birziklatze-plantara (paper-fabrika) bidaltzeko. Bildutako materiala instalazioetan entregatzen denean, esleipendunaren kontura izango dira manipulatu eta azken jomugan entregatzearen ondoriozko kostuak.

Biltegiratze- eta deskargatze-instalazioak San Markoko Mankomunitateko lurralde-eremuaren barruan kokatuko dira. Kontratua lortu nahi duen eskaintzailearen batek gaur egun eremuaren barruan instalazioak ez baditu, kontratuaren esleipenduna izanez gero, sei hilabetetik beherako epean izango dituela adierazten duen berariazko konpromisoa aurkeztu beharko du. Konpromisoan epea, aurrez ikusitako kokapena eta instalazioen gainerako ezaugarriak adieraziko dira, lehiaketaren fasean behar bezala balioztatu ahal izateko. Zehaztutako epeetan hartutako konpromisoa betetzen ez badu, kontratua ebazteko arrazoia izango da.

Denboraldi horretan deskargatze-plantaraino garraioa, zehaztutako baldintzetan, esleipendunaren kargura izango da, bilketa-zerbitzuen ohizko funtzionamenduan aldaketarik eta gainordainik eragin gabe.

Entregatutako paper-kartoiaren kopuruak kontrolatzeko, instalazioek gutxienez baskula edo pisatze-sistema bat izango dute. Gainera, erakunde aginpidedunak eman ondoren, egiaztapenaren kontrol metrologikoaren ziurtagiriz hornituak egongo dira. Era berean, esleipendunak halako instalazio-motarako xedatutako aldizkakotasunez kontrol eta eguneratzeak aurkeztu beharko ditu. Izan ere, hori eskaintza teknikoan definituko da.

Esleipendunak pisatze-ticketa edo -frogagiria entregatuko die ibilgailuen gidariei egindako deskarga bakoitzean. Halaber, hilero San Markoko Mankomunitateari hartutako kiloen zerrenda edo horiek justifikatzeko behar dezakeen beste edozein egiaztagiri entregatuko dio.

Materialak egunez, gauez eta jaiegunetan deskargatuko dira, bilketen ordutegiaren arabera, beraz, ezinbesteko baldintza da instalazioek Mankomunitatearen zerbitzuen beharrekiko ordutegi malgua izatea. Hala, Mankomunitateak definituko duen ordutegian deskargatze-instalazioetan etengabe langileak egongo dira.

Kontratatik bere instalazioen barruan Mankomunitatearen esku espazio mugatu bat utzi beharko du, beharrezkoa izanez gero, ustekabean zerbitzuari entregatu zaizkion objektuak deskargatu den materialaren artean bilatzeko. Seguru bilatu ahal izango dute, bai zerbitzuen erabiltzaileek, baita bilketako langileek ere. Eragiketak esleipendunak ikuskatuta egin beharko dira, arriskuen prebentzio-arauei jarraiki, beraz, eskaintzan aldeztatik zehaztu eta xehatuko dira.

Bestalde, aldi berean, nahitaezko baldintza da esleipendunak Ecoembalajes España, S.A.k (ECOEMBES) berreskuratzaile edo birziklatzaile bezala onartua izateko eskatzen dituen betekizun guztiak betetzea. Esleipendunari berari egotz dakiokeen edozein arazoirengatik onartzen ez badu, kontratua ebatzi ahal izango da.

4.- ENTREGATUTAKO MATERIALAREN AZKENEKO JOMUGA.

Kontratatik jasotako materiala birziklatzera, hau da, paper-orea lortu eta, ondoren, jatorrizko produktua edo pareko bestelako zelulosazko produktua fabrikatzeko berreskuratutako paper-kartoiaren lehengai bezala aprobetxatzera bideratuko du.

Kontratatik ezinbestez materiala hartzaileei entregatu beharko die. Hartzaileak izango dira paper-kartoiaren eta gainerako zelulosazko produktuen azkeneko ekoizle edo fabrikatzaileak, Europar Batasunaren barruan kokatuak daudenak.

Xede horrez, kontratatik gutxienez urtean behin jasotako materialaren kudeaketari buruzko txostena entregatu beharko du eta gutxienez honakoak zehaztuko dira:

- Birziklatu, balioa eman eta zaborteagira (errefusa) bideratutako kopuruak eta ehunekoak, materialaren kalitateen arabera banatuak. Emaitzak eta denboran eboluzioa interpretatuko dira.
- Jomugen arabera materialaren kopuruak eta ehunekoak. Enpresen izenak eta helbideak, baita aplikatutako tratamendua ere zehaztuko dira.

- Entregatutako hondakinen kudeaketari buruzko beste edozein informazio, Mankomunitateak eskatuz gero.

Informazio hau eta orri honetan eskatutako beste edozein formatu digitalean entregatuko da, automatikoki Mankomunitatearen egungo eta etorkizuneko (“Open Data” plataforma) informazio publikoaren sistemetan integratu ahal izateko.

5.- TXOSTEN TEKNIKOA.

Eskaintzaileek beren eskaintza teknikorik hoberena aurkeztuko dute. Horrez gain, entregatutako materiala deskargatu edota manipulatu den biltegiatze-instalazioen ezaugarriak zehaztuko dituzte: planoak, zentrorako sarbideak, deskarga-zabaldegiaren azalera erabilgarria, langileak, makineriaren ezaugarriak, baskula, San Markoko Mankomunitatearen gaikako bilketekin zerikusirik ez duen materialaren sarrerak (t) eta, oro har, eskaintzaileek egokitzen jotzen duten edozein informazio. Instalazioek jarduteko baimen guztiak izango dituzte.

Plantan gutxienez 1.500 m² dituzten instalazioak zehazten dira eta horietatik gutxienez 500 m² deskarga-zabaldegirako izango dira.

6.- OBJEKTU BALIOTSUAK AGERTZEA

Kontratatutako entregatutako materialean ager daitezkeen objektu baliotsuak jakinaraziko dizkio Mankomunitateari eta bere esku jarriko ditu.

Donostian, 2015eko maiatzean

I. ERANSKINA.- BILDUTAKO KOPURUEN ZERRENDA

PAPER-KARTOIAREN BILKETA		
ZERBITZUA	2013. URTEAN BILDUTAKO kg	2014. URTEAN BILDUTAKO kg
PAPERA edukiontzietan	9.306.110	8.976.910
PAPERA ikastetxeak + administrazioa	857.319	884.361
KARTOIA AA merkataritzan	1.292.970	1.286.601
KARTOIA espaloian merkataritzan	987.250	1.016.910
KARTOIA industria-poligonoetan	2.447.310	2.553.669
KARTOIA fruta- eta barazki-kaxak	619.790	518.440
KARTOIA garbigune + zabortegietan	259.905	255.315